


IRUNBERRIKO ARROILAK

Irati tren-konpainiaren bagoietan Iruñetik Zangozara joaten ziren bidaiariei aldiro-aldiro zirrara batek hartzen zien barrua, Irunberriko tunelean barneratu eta, iluntasunaren ondotik, arroila eta labarrak agertzen zirenean. Gaur, trenaren bide berean ibiliko gara: kilometro bat eta 200 metro bete edertasun, ibilbide samurreko ordu bete, 100 metrotik gorako horma bertikalen gainean. Harkaitzeko hegazti espezie-ugarik egiten du hegan labar artean gaindi: sai arrea da guztien artean nabarmenena.

Labarrak eta harkaitzetako hegaztiak.



Bidea, gorabehera eta galbiderik gabea, lehen tunelean sartu eta Irati ibaiaren ezbarriaren barrualdean ateratzen da. Ibaiak bi labar erraldoietan zabaltzen du arroila. Ur-lasterraren alde egingo dugu aurrera, presa bat gurutzatu eta arroilaren amaierara hurbilduko gara. Bigarren tunelan barneratuko gara orduan, iluna, ilunik bada. Kanporatzean, Deabruaren Zubiaren hondakinak ikusiko ditugu eskuinean. Erromatarrena ere esaten diote zubi honi. Irati gurutzatzen zuen aspakdi batean, eta Ledeko hiri erromatarrera eramaten zuen, ondorioz, pentsatzekoa da Erdi Aroko zubi honen azpian izan zela beste bat erromatarren garaikoa. Frantziarrek suntsitu zuten zubia Independentzia Gerran (1812).

Zubitik hainbat aukera zabalduko zaizkigu: bat, itzultzea. Bigarrena, Ledearaino jarraitzea, eta hirugarrena, arroilaren goiko aldetik itzulia osatzea. Aurreneko biek ez dute galbiderik, beraz hirugarrenaren azalpena ondoren:

Ledeara doan pistan, erdialdean-edo, zidor bat barneratzen da ezkerrean (seinale berde eta zuria). Mendi-bizkarra gainditu eta ferra baten moduan egingo dugu jira zidorrean gora. Harrobietako pista ateratzen da zidorra. Igoera gogortzen da, harrobietara sartzea debekatzen den lekuraino. Ezkerrean hartuko dugu lur-bide batean gora; goi-ondokiaren gainera ateratzen da bidea. Zelaian egingo dugu aurrera, harik eta, pixkanaka, bidea beherantz hasten den arte. Beste pista batera iritsiko gara, eta, beherago, Alzuteko eskortara. Linea elektrikoaren ondoan, hari jarrituz, arroilaren hegiraino hurbil gaitzke, hainbat zidorri segika. Xendak ez dira argiak, baina, pista utzirik, aparkalekuraino jaisteko modua izango dugu haien arrastoan.

NOLA IRITSI



Iruñara iristean, Jakara doan bidea hartu behar da. Zangozara iritsi baino lehen ezkerretara desbideratu behar dugu. Ez larritu bidea seinaleztatuta dago.

ETA ONDOREN ZER?

Irati ibaiertzean bainu bat har dezakegu edo inguruetakoko herrietan bisitatxo bat egin. Aukera handia dago:

- Zangoza,
 - o Donejakue bideak ospea eman dio Nafarroako ekialdean dagoen Erdialdeko hiri garrantzitsuenari eta arkitekturako bitxi preziatu batek ere bai: Andre Mariaren elizako atariak, erromanikoaren gailurra eta monumentu nazionala baita.
- Xabierreko gaztelua,
 - o Nafarroako Erdialdean, Zangozatik 8 kilometrora eraikia dago Erdi Aroko gotorleku hau, arroka biziaren gainean altxatua. Urtero, martxoaren hasieran, milaka nafarren jomuga izaten da "Xabierraldia" esaten zaion herri erromesaldi ezagunean.
- Leireko monastegia,...
 - o Izena eman dion mendiaren oinean kokaturik, Zangozatik 16 kilometrora, Leireko monasterioak altxor preziatuak gordetzen ditu bere altzoan, konparazio batera, XI. mendeko kripta, ganga gotikoa edo "Porta Speciosa" esaten zaion XII. mendeko atari erromaniko ikusgarria.